

2017ko EKAINAREN 19an EGIN KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua Herriko Etxean bildu da, Vincent BRU jauna mahaiburu, 2017ko ekainaren 19an, astelehenarekin, 19:00etan.

Hor zirenak: Vincent Bru jaun auzapeza, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, auzapezordeak; Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Camille Jenvrin anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aiçaguerre anderea, Amaia Beyrie anderea, herriko kontseilariak.

Bilkurara ezin etorria jakinarazi zutenak: Eliane Noblia andere auzapezordea, Jean-Jacques Lassus jauna eta Maryannick Hirigoyen anderea, herriko kontseilariak.

Ahalordea: Eliane Noblia andereak Mme Bernadette Jougleux andereari ahalordea eman zion; Jean-Jacques Lassus jaunak Peio Etchelecu jaunari; Maryannick Hirigoyen andereak Anne-Marie Pontacq andereari.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluaren bilkura hasi du kontseilari berri bat ezarriz Pantxo Michelena jaunaren ordezkatzeko. Hau 2017ko maiatzaren 9an zendu baitzen, ordezkatu behar zen. Hauteskunde Kodearen L.270 artikulua arabera, “kontseilari batek edozein arrazoiengatik bere kargua uzten balu, zerrenda bateko azken hautetsiaren ondotik heldu den hautagaiari galdeginen zaio haren ordezkatzea”. 2017ko maiatzaren 15ean jaun auzapezak gutun bat igorri zion Amaia Beyrie andereari Herriko kontseilari izatea onartzen zuenez galdeginez. Amaya Beyrie joan den maiatzaren 19ko gutun baten bidez jakinarazi zuen Pantxo Michelena jaunaren segida hartzea onartzen zuela Herriko kontseilari gisa. Ondorioz, Amaia Beyrie andereak Pantxo Michelena jauna ordezkatu du Herriko Kontseiluan. Jaun auzapezak Herriko Kontseilura deitu du kontseilari gisa, zerrendako ondokoa baitzen. Amaia Beyrie anderea ofizialki Herriko kontseilari gisa sartu da.

Eguneko gai zerrendaren aipatzen hasi aitzin, jaun auzapezak Pantxo Michelena kontseilaria eta bidelaguna omendu du, haren heriotzak kontseilari guziak hunkitu eta sesitu baititu, zernahi alderditakoa izanik ere. Sortzez eta bihotzez saratarra zen Pantxo, eta Kanbora lanarengatik etorri zen. Luzaz irakasle egon zen ama-eskola publikoan, eta irakaskuntza errotik gogoko zuen. Mugimendu anitzetan ibilia zen eta izigarri engaiatua zen bai euskararen eta euskal kulturaren alde, bai ordezkatzeko abertzale mugimenduaren alde. Gizarte Ekintzako Udal Zentroaren alde ere engaiatua zen, eta hango lehendakariak, Henri Saint-Jean jaunak, aldi bat baino gehiagotan aipatu du han egin zuen lana. Pantxok jendeak maite zituen, bai eta gure herriaren historia eta kultura, eta edozein kultura mota funtsean, kulturari biziki atxikia baitzen. Pantxo gizon irekia zen, bazituen sinesteak eiki, baina biziki gizon irekia zen, eta atsegingarria zen harekin mintzatzea, biziki ikusmolde desberdina ukanik ere. Haren umoreaz oroituko gara, emateko zituen mezuak horrela ematen baitzituen, noiztenka ironiaz mintzo zen, baina sekula ez zuen nehor laidotzen. Jaun auzapezak minutu bateko isiltasuna galdegin du gizonaren, abertzalearen, hautetsiaren eta hezitzailearen omenez.

Herriko Kontseilua hasi aitzin, Vincent Bru jaunaren azken kontseiluetarik bat Kanboko auzapez gisa, lehen auzapezorde den Jougleux andereak hitza hartu du haren zoriontzeko, 6. bozka-

eremuko diputatu gisa hautatua izan baita. Gaitzeko emaitza bildu du: bozen % 62. Hola-hola segi dezan desiratu dio, eta oraindik goiti ukanen dituen proiektuetan ongi ibil dadin. Jogleux andereak Vincent Bru eskertu du. Gehiengoan den taldeak txalotu du.

Jaun auzapezak biltzar osoa eskertu du, eta berriz ere oroitarazi du ez dela Departamenduko kontseilari geldituko horrek ordainsari bat ekartzen baitu, baina Herriko kontseilari geldituko dela, ez baitu ordainsaririk ekartzen, aspalditik defendatzen dituen ideien eta baloreen ildotik.

1 - Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Argitxu Hirigoyen anderea aho batez bilkurako idazkari izendatua izan da.

2 – Azken bilkurako agiriaren onartzea.

Jaun auzapezak Herriko kontseilariari galdegin die oharrik ba ote zutenetz 2017ko martxoaren 27an iragan azken bilkurako agiriari buruz.

Oharrik ez baitzen, aitzineko bilkurako agiria aho batez onartu da.

3 – Saneamendu-eskema nagusia

Devèze jaunak jakinarazi du prefetaren 2004 eta 2011ko bi erabakiren bidez Kanbon plantan ezarri saneamendu-sistema onartu zela 12.500 biztanlerentzat balio duen araztegiarentzat. Sistema pisua da, ortzi-isurbide batzuekin, eta ontsalaz urtean hamabi isurketa baizik ez dira egiten ahal. Erregulariki isurketa gehiago egin dira. Prefeturak Herriko Etxeari isurketa kopurua gainditu dela jakinarazi dio azken hilabete hauetan: 2014ko ekainean ohartarazi da; bigarren erabaki bat hartu zen 2015eko ekainean eta prefeturak Herriko Etxeari galdegin zion diagnostiko hidrauliko baten egitea 2016ko uztailaren 1a gabe.

Devèze jaunak oroitarazi du Euskal Hirigune Elkargoan eskumen-eskualdaketa gertatuko dela urarentzat, bai eta saneamendu kolektiboarentzat.

Saneamendu-eskema nagusi horrentzat azterketak egin beharko dira, eta horrek anitz gosta izanen du: 80.000 €. Erabaki horiek agertu direnaz geroztik herriko zerbitzuek Devèze jauna erregulariki abisatu dute, baina honek denbora pasatzera utzi du, horrela, eskumenaz gain, azterketen kostua ere Euskal Elkargoak har dezan bere gain eskumen-eskualdaketa gertatuko delarik. Hala ere, urte hastapenean, Herriko Etxeko zerbitzuek jakinarazi zuten prefetura haien ondotik ibili zela, eta Herriko Etxeak ezin duela gehiago epe hori gibelatu. Gainera saneamenduari dagokionez, eskumenaren hartzea ez da bortxaz edateko uraren eskumena bezalakoa izanen; ez da errana heldu den urtarrilaren 1ean Euskal Elkargoak eskumen hori hartuko duela. Edozein gisaz, legearen arabera, 2020 aitzin egin beharko du. Herriko Etxeak azterketa hori egin beharko du, bai eta eskema definitu, eta baldintzen bilduma obralarigaiei betearazi. Devèze jaunak zehaztu du lanen gidaritza kide guziek errezibitu duten baldintzen bilduma baten arabera behar dela egin.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio haren iritzia ematea alde batetik saneamendu-eskema nagusiaren gauzatzeari buruz, eta beste aldetik, hautagaiei proposatuko den baldintzen bildumari buruz.

Bacardatz jaunak ohartarazi du zerbitzuek Devèze jauna abisatu zutela azken urte honetan edo azken bi urteetan, eta domaia dela azterketa hori ez lehenago egin izana, ikusiz saneamendu-

aurrekontuaren soberakina. Ulertu du Devèze jauna beha zela eskumena Euskal Elkargoari eskualda zedin azterketa hark pagatzeko gisan, baina oroitarazi dio Herriko Kontseilu baten kariatara, entseatu zela gastuen atzematera aurrekontuaren soberakina ez zedin Euskal Elkargora joan, eta hori ez du ulertzen.

Devèze jaunak esplikatu dio arauaren arabera urtean 12 isurketa baizik ez direla egiten ahal, hots, euri-ur edo berdin ur zikin soberakinek isurbideak gehiegi kargatzen dituztela. Beraz, azterketa bat behar da egin arazo horren konpontzeko. Isurbideak emendatu behar ote dira? Araztegiaren ahalmena handitu behar ote da? Devèze jaunak jakinarazi du saneamendu-aurrekontuaren soberakina ez dela aski izanen obren burutzeko, araztegiaren ahalmenaren handitzeko obrak handiak lirakeelako. Oroitarazi du 2006an Herriko Etxeak 12.500.000 libera ezarri zituela horretarako. Alabaina, soberakinak badira, baina nahiago lituzke Kontseiluko zenbait kidek seinalatu beste proiektu batzuentzat erabili. Horretarako, Saneamendu Batzordeak bilkura bat antolatuko du eta karia horretara dira galdeak aztertuko. Devèze jaunak oroitarazi du zerrendako gai horri dagokionez, lanen gidaritza dela hautatu behar eta nehola ere ez obren hastera. Alabaina, obra horiek Herriko Kontseiluak bozkatu beharko duen saneamendu-eskema nagusiaren ondorio bailitezke.

Bacardatz jaunak gehitu du interesgarri gerta litekeela saneamendu batzordearen kariatara etxetiarraren oharrak ukaitea. Alabaina, etxetiarrak 80 bisita egin behar ditu urtean, baina sekula ez da deus jakin batzordea ez baita biltzen. Alta etxetiarraren bidez batzordeko kide guzietz sareen egoeraren berri har lezakete, adibidez.

Devèze jaunak erantzun dio etxetiarrak urte guzietz behar duela kontu eman, zerbitzu publikoaren ordezkaritza edozein izanik ere. Hala da edateko urarentzat, URA sindikatuaren bidez, eskumena errezibitu baitute. Herriko Etxeak urte guzietz iragan urteko txostena errezibitzen du. Txosten hori Herriko Kontseilu baten kariatara helarazi da, legearen araberako betebeharra delako. Bacardatz jaunak galdatzen dituen elementuak urte guzietz txosten batean biltzen dira: oharrak, kameraren iragateak, bisitak, partikularren etxean egin kontrolak bereiztaile bat plantan ezartzen delarik. Etxetiarrak egiten dituen 80 bisiten berri ematen du txosten baten bidez, eta urte guzietz elkargoari ematen dio txosten hori.

Bacardatz jaunak erran du ez zitzaiola iduritzen txosten hori ikusi zuenik ez 2015ean ez 2016an, baina egiaztatuko zuela.

Devèze jaunak erantzun dio errazki egiaztatzen ahalko duela, biharamunean berean zerbitzuen zuzendari nagusiaren bulegora joan daitekeela haien irakurtzeko. Baiezatu dio urte guzietz iragan urteko txostenaren sintesia aurkezten diola Herriko Kontseiluari.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du, alde batetik ikerketa-bulego baten izendatzeko egokia den prozedura-kontsulta abiatzeko, eta bestetik hautagaiei igorri baldintzen bilduma egiazkotzeko.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

4 – Animazio-gune estali baten sortzea

Jougleux andereak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Kanboko Herriko Etxeak animazio-gune estali bat sortu gogo duela, 500 m² ingurukoa, AX 0097. lursailean, Kanboko San Josep parkean. Animazio-gune estali horren bidez:

- muntadura publikoak osatuko dira. Ekitaldi ttipiak egiten ahalko dira gune horretan: tokiko ekoizleen merkatuak neguan, ganer-husteak, kukuso-merkatuak, erakusketak, landare-trukada merkatua... Elkarteek ere ekitaldiak edo ikusgarriak antolatzen ahalko dituzte, adibidez, kontzertuak, txotxongilo-ikusgarriak, edo apairuak (piknikak, sukaldarik ez baita izanen),
- karrikan egitekoak ziren ekitaldiak han egiten ahalko dira aro txarra balitz (musikaren besta, dantza tradizional ikusgarriak...),
- San Josep parke zola biziartzeko da, herri barneko beste animazio-guneekin lotuz.

Jougleux andereak oroitarazi du animazio-gune estali horren eraikitzea haien proiektuetarik bat zela azken herriko hauteskundeetan.

Arta berezia emanen da muntaduraren itxurari, arkitekturari, eraikina lehen behakoan ezagutua izan dadin, eta herriko egituraketaren parte izan dadin.

Xedea da gunea irekia izatea:

- behereko aldea irekia izanen da,
- gaineko aldea hetsia izanen da haizetik eta euritik babesteko,
- argitsua izanen da zenit-argiari esker,
- noiztenka behereko aldea hesten ahalko da, euria edo eguzkia gehiegi sartzen den aldeetan,
- hautuzkoa: materiala biltzeko lokal bat ere proposatuko da (mahai eta kadirentzat).

Eraikina tresnatua izanen da:

- ur hotza hartzen ahalko da eta hustu,
- argigailu moldagarri sarea ukanen du erabilera mota desberdinentzat,
- soinu-sistema sarea ukanen du.

Proiektuarentzat 500.000 €-ko (zergarik gabe, altzaririk gabe) aurrekontua ematea aurreikusia da.

“Departamentu-lurraldearen zentralitate eta erakargarritasunaren azkartzea” Departamenduaren proiektuaren kariatara, Herriko Etxearen proiektua laguntzen ahalko da txosten osoa 2017/09/30a aitzin igortzen baldin bada bakarrik.

Epemuga hori kontuan harturik, Herriko Etxeak kontsulta-prozedura abiatu du obralariaren hautatzeko. Konkurrentziarako deialdi publikoa *Petites Affiches* egunkarira igorri da 2017ko ekainaren 6an, eta kontsulta txostena helbide honetan ikus daiteke: e-administration64.fr.

Obralariaren hautua egiteko tratua bakar bati esleituko den oinarri-hitzarmen baten moldean egin da, lau urte iraunen du, gutienekorik gabe eta gehienez dagokion prozedurarena izanen da.

Kontsulta hori kandidatura-dosierraren arabera izanen da prestazioarekin, eta “dagokion prozeduraren” arabera antolatua da, 2016ko martxoaren 25eko 2016-360. dekretuaren 27. artikulua arabera.

Barne hartuko ditu:

- hautagaien zerrenda konkurrentziarako deialdi publikoarekin,

- prestazio-eskaintza bat aurkeztea onartuak diren hautagaien hautaketa dosierraren arabera, dokumentu honetan zehaztu aitzin hautaketa irizpideen arabera,
- hautatuak diren hautagaien entzutea, “arkitektura-xede” prestazio batekin,
- eskaintzen azterketa dokumentu honetan zehaztu esleitze-irizpideen arabera,
- hautagaien sailkatzea,
- tratua baldintzen negoziazioa lanen gidaritzari beharrezkoa iduritzen bazaio,
- oinarri-hitzarmenaren esleitzea lanen gidaritzarengandik .

Herriko Kontseiluari galdegin zaio kontsultaren abiatzea onartzea, animazio-gune estaliaren arkitektoa hautatzeko gisan.

Jaun auzapezak baieztatu du Jouglex andereak errana: proiektu hori hauteskunde programako agintza bat zen, zorigaitzez noiztenka Herriko Etxeak jarduera bat ezeztatu behar baitu aro txarra dela eta. San Josep parkea berritua izan da, eta horretaz baliatu behar da gune hori animazio leku bilakatzeko.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du Tillac lursailaren gune estaliaren proiektua denetz lorategi publikoan eginen.

Jaun auzapezak ezetz erantzun dio. Animazio-gune estalia izanen da, eta ez merkataritza-gunea.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du Tillac lursaileko proiektua merkataritza-gunea izanen denetz.

Jaun auzapezak erantzun dio bere taldeak ikusiko zuela.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du beti bezainbat misterio badela, eta gune-estali horren proiektua haien programaren barne ere zela. Bi taldeak horretan ados dira.

Jaun auzapeza pozik agertu da bi taldeek bat egiten baitute noiztenka, eta ez denetz usu gertatzen, gogoan hartzen du.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazten du ur hotza baizik ez dela hartzen ahalko, eta sukaldetik ez dela izanen. Galdegin du ez ote zirenetz gauzak aitzinatzen ahal, eta egun batez gune hori apairu baten prestatzeko erabiliko baita, adibidez, ez ote denetz ur beroaren lotura ere ezartzen ahal.

Jaun auzapezak erran dio arrunt posible dela. Obralariarekin ikusi beharko da hori. Proiektua denboran zehar aldatzen ahalko da.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du eskolek gune estali hori erabiltzen ahalko dutenetz.

Jaun auzapezak erantzun dio nahi duenak erabiltzen ahalko duela, leku publikoa baita.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du ez dela pertsona handirik sartzen ahalko 500 m²-tan. Alabaina, Kanbon gelak eskas dira apairuen antolatzeko.

Jaun auzapezak zehaztu du jarririk egiten den apairu batentzat, 1 m² behar dela pertsona bakoitz, eta oholtzaren gainean ere mahaiak ezartzen ahalko direla, xabala baita.

Aiçaguerre andereak galdegin du oholtza gune estaliaren barne izanen zenetz.

Jaun auzapezak baietz erantzun dio. Musika-ekitaldi bat izanen delarik musikariak ez dira euripean izanen, eta publikoa barnean. Ez litzateke zentzuzkoa.

Aiçaguerre andereak gehitu du gehiengoan den taldearen ideiak ez direla beti zentzuzkoak.

Jaun auzapezak erantzun dio aldi honetan horri pentsatu dutela, beste taldeari galdegin gabe.

Hiriart-Urruty anderea harritu da, hain zuzen proiektu hori ez baita sekula aipatua izan.

Jaun auzapezak oroitarazi du proiektu hori bi hauteskunde zerrenden programan zela.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du proiektu hori ez zela behin ere hirigintza-batzordean aipatu, ez eta obra-batzordean.

Jaun auzapezak erantzun dio proiektu hori ez dela hirigintza-batzordean aipatzen, baina batzorde batean aurkeztuko dela proiektua pixka bat zorrotz delarik. Bilkura horretan azterketa da abiatzen, ez da proiektu prest-prestik. Aitzin proiektuak izanen direlarik puntu hori batzordean aipatzen ahalko da. Bi taldeen programaren erabaki politikoa da. Proiektua abiatu behar da, eta Herriko Etxea hastapenean baizik ez da.

Hiriart-Urruty andereak galdera bat pausatu du, zehaztuz beharbada goizegi dela pausatzeko: gune estali hori erabili nahiko lukeen elkarte bati alokatuko ote zaio?

Jaun auzapezak baieztatu du goizegi zela galdera horren pausatzeko.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

4 bis – Batzorde berezi baten osaketa.

Jougleux andereak jakinarazi du animazio-gune estali baten eraikitzearen kariatara, obralariaren hautua egiteko tratua bakar bati esleituko den oinarri-hitzarmen baten moldean egin dela, lau urte iraunen duela, gutienekorik gabe eta gehienez prozedurari dagokiona.

Kontsulta hori kandidatura-dosierraren arabera izanen da prestazioarekin, eta “dagokion prozeduraren” arabera antolatua da, 2016ko martxoaren 25eko 2016-360. dekretuaren 27. artikulua arabera.

Barne hartuko ditu:

- hautagaien zerrenda konkurrentziarako deialdi publikoarekin,
- prestazio-eskaintza bat aurkeztea onartuak diren hautagaien hautaketa dosierraren arabera, dokumentu honetan zehaztu aitzin hautaketa irizpideen arabera,
- hautatuak diren hautagaien entzutea, “arkitektura-xede” prestazio batekin,
- eskaintzen azterketa dokumentu honetan zehaztu esleitze-irizpideen arabera,
- hautagaien sailkatzea,
- tratua baldintzen negoziazioa lan gidaritzari beharrezkoa iduritzen bazaio,
- oinarri-hitzarmenaren esleitzea lan gidaritzarengandik.

Kontsultaren zenbait faserentzat, horretarako osatu batzorde berezi batek lanen gidaritza lagunduko du. Batzorde horretan Herriko Etxeko ordezkariak izanen dira, eta behar balitz, haien gaitasun profesional edota teknikoentzat hautatu pertsona kalifikatuak.

Batzorde bereziak aholkuak baizik ez ditzake eman. Batzordekide bakoitzak bere iritzia emanen du lanen gidaritzak bere erabakia har dezan. Batzorde bereziak lagunduko du, bereziki kandidatura-dosierren irakurtzeko eta eskaintzen aztertzeko. Entzunaldian parte hartuko du bai eta eskaintzen ematean.

Lanen gidaritzak du erabakitzeke eta hautagaien hautatzeko ahala.

Lanen gidaritzak galdaturik, batzorde bereziaren oharrak eta gomendioak txosten batean idatziko dira bilkura bakoitzean. Dokumentu horiek herriko teknikariak idatziko ditu obralariaren ardurapean.

Jaun auzapezak proiektuaz interesatuak diren zenbait hautetsi aurkeztu ditu, eta bistan da, oposizioak ere bere kandidatura aurkezten ahal du. Gehiengoan den taldeko hautetsiak horiek dira: Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Bernadette Jougoux anderea, Camille Jenvin jauna, Didier Irastorza jauna, Patrice Dor jauna.

Opisizioko hautetsietan, Philippe Bacardatz jaunak bere kandidatura aurkeztu du.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

5 – AHIKekin laguntza-hitzarmena

Jougoux andereak jakinarazi du Kanboko herriak Arkitektura, Hirigintza eta Ingurune Kontseiluari (AHIK) dei egin diola egin nahi gogo dituen ekintzei buruz gogoetatzeko.

AHIK-en eginkizuna Herriko Etxearen laguntzea izanen da, bereziki bizi-ingurumena hobetzeko ekintzentzat, eta partikularki:

- San Josep parkean eraikiko den animazio-gune estaliarentzat,
- proiektuen gauzatzea eta horien jarraipena kalitatezkoa izateko.

AHIKek Herriko Etxea lagunduko du lan gidaritza kontsultaren antolaketan. Herriko kontseilariak errezibitu dute laguntza kargu hitzarmena bai eta oinarri-oharra animazio-gune estaliaren eraikitzeke.

Elkargoak beharko ditu 3.000 € (garbi) ordaindu misio horren gauzatzeke.

Hitzarmen hau izenpetuko da misioa burutzeko denboraldiarentzat, hots berantenez 12 hilabete hitzarmen hau elkargoak izenpetu ondoan. Beharrez epea luzatzen ahalko da gehigarri baten bidez.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio jaun auzapezari baimena ematea AHIKekin hitzarmena izenpetzeko lanen gidaritza laguntzeko, bai eta dosierari buruzko dokumentu oro (administratiboak, teknikoak edo finantza mailakoak) izenpetzeko.

Jaun auzapezak gehitu du ondarea ere jokoan dela horrelako gune bat eraikitzean, behar dela tokiko estiloari egokitu, etab. AHIK jadanik ari izana da horrelako gaietan. Departamentuko Biltzar Nagusia egin du joan den ostiral arratsaldean Arnagako laranjategian, eta elkargoaren laguntzeko prest da. Garrantzitsua da, Herriko Etxeak dossier hori eskaintza-deialdi baten kariatara aurkeztu behar baitu Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluari diru-laguntza baten galdegiteko, eta interesgarri iduritzen zaio AHIK ere lotzea.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

6—San Mixel Garikoitz karrikako lursailaren eskuratzea.

Bardin jaunak oroitarazi du Herriko Etxeak Mixel Garikoitz karrikan dagoen lursail bat erosi nahi izan duela, 78. AV lursaila, 6.152 m²-ko hedadura duena. Proiektu hori operazio hautagarrien zerrendan sartua izan da, 2016an esleitu Errobi Herri Elkargoaren lehiaketa-diruan. Akordio bat egin da Herriko Etxeak lursail horren parte bat erosi zezan, hots 4.573 m²-ko hedadura duen parte, eta horrek 704.682 € gosta zuen.

Jabegoaren zerbitzuak lursail horren balore salgarria 948.000 € gosta zuela estimatu du 2017ko martxoaren 24an. 2017ko martxoaren 27ko deliberamenduaren arabera, Herriko Etxeak lursail horren eskuratzea baieztatu du, hots 4.573 m²-ko hedadurakoa, 704.682 €-ren truke.

Herriko Kontseiluari galdegina zaio:

- geometria baten izendatzea (lursaila muga dezan, geometria-dokumentuak idatz ditzan...) eta gastu horien ordainketari buruz iritzia eman dezan.
- jaun auzapezari baimena ematea horri buruzko dokumentu oro izenpetzeko.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du mugatze-gastu horiek Herriko Etxeak erosi lursailarentzat bakarrik zirenetz ala lursail osoarentzat.

Bardin jaunak erantzun dio Herriko Etxearen lursailaren mugatze-gastuak bakarrik direla.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du proiektu horretan beti aipatzen zela Toki Eder etxeak erosi lursaila. Ez du ulertzen zergatik, hori lursail pribatua baita, eta zergatik bi erosleak beti lotzen diren.

Bardin jaunak gehitu du Herriko Etxearen lursaila mugatu behar zela.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du Herriko Etxeak zituenetz gastu horiek bere gain hartzen.

Bardin jaunak erantzun dio Toki-Eder etxeak bere lursaila berak mugatuko duela.

Aiçaguerre andereak galdegin du mugatze-gastuak saltzailearen ala eroslearen gain zirenetz.

Bardin jaunak zehaztu du gastuak eroslearen esku zirela.

Aiçaguerre anderea harritu da. Pentsatzen zuen saltzaileak zuela lursaila mugatu behar. Joan den martxoaren 27ko Herriko Kontseiluan garbiki adierazia izan beharko zen.

Bardin jaunak erantzun dio eroslearen eta saltzailearen arteko hitzarmena dela. Negoziazioaren parte da.

Aiçaguerre andereak gehitu du puntu hori zehaztua izan beharko zela azken Herriko Kontseiluan. Haren taldeak badaki Herriko Etxeak San Mixel Garikoitz karrikako lursaila erosiko duela, baina ez du jabearen izena ezagutzen, eta Kontseilu horretan elementu franko falta ziren.

Bardin jaunak gehitu du iduritzen zaiola martxoaren 27ko Herriko Kontseiluan jabearen izena erran izan zela. Ez du uste Herriko Etxeak izena kukutu nahi izan duela. Denek dakite lur hori norena den.

Aiçaguerre andereak jakinarazi du testuen arabera deliberamendu bat ezeztatua izan daitekeela jabearen izena ez baldin bada emana.

Jaun auzapezak zehaztu du denek ezagutzen dutela jabearen izena, eta zenbaitetan erran izan dela. Lursailaren jabea Tillac anderea da. Honek lursail osoa saldu nahi zuen. Beraz, lursaila partekatu da erietxearen eta Herriko Etxearen artean. Erietxeak garatu nahi du, hain zuzen. Normala da Herriko Etxeak geometra-gastuak bere gain har ditzan.

Bacardatz jaunak galdegin du normala ote den erietxe bat eta Herriko Etxea izanik erosleak, azken honek hartzea bere gain mugatze-gastuak.

Jaun auzapezak erantzun dio Herriko Etxeak bere lursailaren mugatze-gastuak baizik ez dituela bere gain hartuko.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du mugatze-gastu horiek zenbatekoak diren.

Jaun auzapezak erantzun dio lehenik deliberamendu bat behar dela eta ondotik dela geometrarekin harremanetan sartuko. Baina erran dio mugatze-gastuak ez direla hain kario.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Gehiengoaren bidez bozkatua. Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aiçaguerre anderea, Amaia Beyrie anderea.

7 – Musdehalsuenborda salgai.

Dor jaunak erran du Musdehalsuenborda salgai dela. Denek badakite etxe hori dagoen lursaila txokolategiaren ondokoa dela. Herriko Etxea da etxe horren jabea, eta saldu gogo du, bai eta lursailaren parte bat, hots, 2.317 m². Herriko Etxeak 270.000 €-tan saltzea proposatzen du.

Dor jaunak salmentaren zenbatekoaren historia laburra egin du. Alabaina, lursail horren baloreari buruz Jabegoak bere iritzia eman du 2017ko apirilaren 5ean. Herriko Etxeak galdeginik, Jabegoak estimatzen du Musdehalsuenbordak 273.000 € balio duela. Herriko Etxeak nahi luke ekonomia-aktibitate bat ezarri salgai den lursailean, gune horretan koherentzia baten atxikitzeko gisan.

Jaun auzapezak zehaztu du Puyodebat txokolategiak gain, gune horri balioa eman behar zitzaioela, ahalaz gai beraren inguruan, eta erortzen ari den eraikin hori ez atxikitzea, baina aktibitate ekonomiko baten egiteko proposatzea, eta esperantza du enplegu berriak sortuko dituela.

Bacardatz jaunak galdegin du gainerako lursailak zenbat m²-ko hedadura lukeen, eta zergatik Herriko Etxeak ez duen dena saltzen. Eskuen artean dituzten planoetan, saldu diren lursailena falta da. Beharko da zehaztu Herriko Etxearena geldituko den lursailaren azalera.

Dor jaunak erantzun dio orotara 9.336 m²-ko azalera zela. Lursail horren parte bat ez da errazki erabiltzen ahal, patarrean baita, eta xabala den parte da salgai ezarria. Beraz, Herriko Etxeak 7.019 m²-ko lursaila atxikiko du.

Bacardatz jaunak galdegin du zuhaitzak diren parte ere salduko denetz.

Jaun auzapezak erantzun dio hastapeneko estimazioan, lursail-multzoan, bazela bide pribatua eta zuhaitzak dituen parte (sailkatua) Pons andereari erosi etxean. Bistan da, Herriko Etxeak sailkatua den zuhaitzekilako parte atxikitzen du, eta planoan agertzen den parte baizik ez du saltzen, eta erosleak parte hori du erabiltzen ahalko.

Bacardatz jaunak galdegin du ea enpresarik ez den herriko zerbitzuengana hurbildu gune horrentzat.

Jauna auzapezak erantzun dio etxea ez dela teilatutik hasi behar. Lehenik behar da erran lursail hori salgai dela jendeak hari interesa daitezen. Haatik bizpahiru pertsona hurbildu dira, lursail bat erosi nahi baitute Kanbon, eta beharbada pertsona horiek interesatuak litezke. Herriko Etxea pertsona horiekin harremanetan jarriko da.

Bacardatz jaunak galdegin du merkataritza-aktibitatea ote litekeen ala ofiziale-aktibitatea.

Jaun auzapezak erantzun dio merkataritza eta ofiziale aktibitatea izanen dela. Ez da saltegi bat izanen, baina ekoizpena, txokolategileak egiten duenaren gisan, produktu baten ekoizteko eta saltzeko.

Aiçaguerre andereak gehitu du jaun auzapezaren programan errana zela leku horretan gozogune bat eginen zela. Oraino ideia hori bada, ala bazterrera utzia da?

Jaun auzapezak erantzun dio, erran berri duela bere asmoa dela lursail horretako proiektua jadanik hor dagoenaren jarraipenean izatea, hots, gozogune baten egitea. Herriko Etxeak nahi luke Euskal Herriko produktuen erakusleihu bat egin.

Hiriart-Urruty andereak jakin nahi du zein urtetan erosi zioten lursail hori Pons andereari, eta zer prezioetan.

Jaun auzapezak erran dio galdera bilkura aitzin pausatu beharko zuela, dossierrean elementu hori ez baitu. Erantzuna ondoko Kontseilu batean emanen da.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du zergatik Herriko Etxeak lursail hori saltzen duen. Herriko Etxea sos beharretan ote da? Animazio-gune estaliaren finantzatzeko ote da, hau ez baita aurrekontuan ezarria izan?

Jaun auzapezak erantzun dio Herriko Etxeak ez duela zuzenean garapen ekonomikorik egiten. Iduritzen zaio enpresa ttipi eta ertainek dutela aktibitate ekonomikoa sortu behar. Zail gertatzen da Herriko Etxearentzat obren egitea erabiltzailea nor izanen den jakin gabe. Hobe proiektua duenak dezan eros, obrak nahi bezala egin ditzan eta ondotik bere enpresa gara dezan. Hori egina izan zen ondoko lursailarentzat: Puyodebat enpresaburuak bere proiektua aurkeztu zuen,

biziki proiektu ona zen, beraz, lursaila saldu zitzaion eta bere proiektuari egokitu muntadura eraiki zuen, eta osoki finantzatu. Herriko Etxeak gauza ber-bera egin nahi du Musdehalsuenbordarentzat.

Hiriart-Urruty andereak berriz galdegin du ea Herriko Etxea sos beharretan denetz, eta animazio-gune estalia nola finantzatuko den, ez baita aurrekontuan sartu.

Jaun auzapezak zehaztu du animazio-gune estalia ez dela 2017an eginen, proiektua hastapenean baizik ez dela, 2018ko aurrekontuan sartuko dela, eta egia, interesgarri liteke lursail hori saltzea eta denen probetxutan erabiltzeko esleitzea. Ez da deus eskandalagarri horretan. Baieztatu du ez dela zorren ordaintzeko baina garapen-proiektuentzat. Herriko Etxeak *skate-park* bat eraiki berri du eta jende franko joaten da hara, eta San Josep parkeko joko-gunea handitu du. Auzapezaren taldearen iduriko, deus balio ez duen eta andeatuko den eraikin hori erortzen utzi baino, hobe da saltzea eta sosa denen probetxuko operazioetan erabiltzea.

Beyrie andereak galdegin du Herriko Etxeak pentsatu ote zuenetz espekulazioaren kontrako klausula bat egitea, lursaila ez dadin ondotik berriz saldua izan.

Jaun auzapezak erantzun dio espekulazioaren kontra bizitegiarentzat dela egiten, ez aktibitate ekonomikoentzat. Herriko Etxeak lursail bat saltzen du eta esperantza du enpresa batek anitz inbestituko duela lursail horretan. Jabegoaren zerbitzuek estimatu lur zergen balioa badu Herriko Etxeak mota horretako aktibitateentzat, hots, UY gunea. Balio erantsia eraikina izanen da, muntadura, eta hori obrak eginen dituen enpresaren arabera izanen da.

Bardin jaunak gehitu du ezinezkoa zela UY gunea batean bizitegiak eraikitzea. Espekulazioa bizitegiekin egiten da, eta enpresa batekin.

Jaun auzapezak esperantza du lursailaren erosleak pentsatu proiektuarentzat erabiliko duela lursaila.

Bacardatz jaunak erran du beraz pertsona hori existitzen zela.

Jaun auzapezak ezetz erantzun dio. Uste du Bacardatz jaunak, berriz ere ez duela deus ulertu. Herriko Etxeak lursaila salgai ezarriko du. Salgai izanen den mementotik, erosleen proposamenak izanen dira, eta bistan da, negoziazio bat gertatuko da.

Aiçaguerre andereak ohartarazi du gunea UCE zela eta ez UY.

Bardin jaunak erantzun dio ekonomia eta merkataritza gunea zela, beraz, ez dela bizitegirik eraikitzen ahal.

Magis jaunak jadanik ohartarazi zerbait ohartarazi du. Lursail horretako bidea karrika itsu bat da, nahi luke bide horren puntan leku bat antolatua izan dadin zikinontzi-kamioiak itzultzeko gisan, gaur egun aparkalekuan itzultzen baitira. Lursailaren mugaketan Herriko Etxeak itzultzeko gunea horren egitea kontuan hartuko ote du ala ez? Hori denendako baliagarri liteke, eta etxe-multzoentzat nahitaezkoa da.

Jaun auzapezaren iduriko galdera hori eroslearekin negoziatzen ahalko da, harentzat ere interesgarri izanen baita kamioiak itzultzeko gunea baten ukaitea.

Bacardatz jaunak galdegin du oraingo eraikina lurrera botako denetz.

Jaun auzapezak hirugarren aldikotz erantzun du ez dakiela norik erosiko duen. Honek eraikina berri nahi baldin bada, berri nahi du, lurrera bota nahi bada, lurrera botako du.

Bacardatz jaunak bakarrik zehaztu nahi zuen eraikin horren teilatua 2005 irian berri zela, eta lurrera botatzen baldin bada, deusetako inbestimendua litekeela Herriko Etxearentzat.

Jaun auzapezak ezetz erantzun dio, teilak berreskuratuko direla. Zureria ez zen berriz egina izan. Ohartarazi du gaur egun ez dela nehor bizi etxe horretan, ez dela erabilia, eta andeatzen ari dela. Iduritzen zaio tenorea dela haren taldeak proiektu bat ukan dezan, eta bilkura horretan aurkeztu du.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Gehiengoaren bidez bozkatua.

Bozkatu gabe egon da: Amaia Beyrie anderea.

8 – Jatetxe-agiriak: hornitzailearen izendatzea.

Irastorza jaunak oroitarazi du 2016ko uztailaren 4ko deliberamenduaren arabera, Herriko Etxeak oinarri-hitzarmen bat duen Groupe UP – Chèque Déjeuner sozietatea izendatu zuela jatetxe-agirien erosteko Herriko Etxeko langileentzat. Oinarri-hitzarmen hori 2017ko abenduaren 31n bukatuko da.

Beraz, Herriko Etxeak kontsulta bat abiatu du 2017ko maiatzaren 5ean, hornitzailearen izendatzeko gisan. Horrela egingen da:

- alde batetik, 2016ko ekainaren 6ko deliberamenduan finkatu oinarrien arabera:
 - o gehienez ere 100 jatetxe-agiriko oinarri finko bat,
 - o jatetxe-agiriak 6 € balio ukanen du, eta Herriko Etxeak balio horren % 60 ordainduko du,

- bestalde, elementu osagarri horien arabera egingen da:
 - o hartzaileak: 61 langile,
 - o 2018ko urtarrilaren 1ean hasiko da,
 - o 3 urtez iraunen du, hots, 2020ko abenduaren 31 arte.

Eskaintzak 2017ko ekainaren 7ko eguerdi arte egiten ahalko dira. Herriko Etxeak bi eskaintza errezibitu ditu: lehena Groupe UP sozietatearena, bigarrena Edenredena. MAPA batzordea bildu zen 2017ko ekainaren 14an, 16:00etan, hornitzailearen hautatzeko, eskaintzen txostenaren azterketa entzun ondoan.

Herriko Kontseiluari proposatu da Groupe UP sozietatea hautatzea kontsultaren araudiko ezaugarrien arabera ekonomikoki interesgarriena baita, eta galdegin da jaun auzapezari baimena ematea horri buruzko dokumentu oro izenpetzeko.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

9 – L’Aiglon zinema: Zerbitzu Publiko Ordezkaritza (ZPO).

Lespade andereak jakinarazi du Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L1411-1. artikulua eta ondokoen arabera: “lurralde elkargoko batzar erabakitzaileak zerbitzu publiko ordezkaritzaren alde agertu direla. Ordezkariek bermatu behar dituen zerbitzuen ezaugarriak txosten batean bilduak dira, eta txosten horri buruz erabakia hartu du”.

2012ko abenduaren 17ko deliberamenduaren arabera, Marie-Hélène DOILLET andereak zerbitzu publiko ordezkaritza bermatzen du L’Aiglon zinemaren kudeatzeko. Baina hitzarmena bost urterendako izenpetu zen, eta 2017ko abenduaren 31n bukatuko da.

Beraz, lehia ezartzeko prozedura bat behar da abiatu, zinemaren erabiltzen eta animatzen segitzeko 2018ko urtarrilaren 1etik goiti, zerbitzu publiko ordezkaritza mantenduz.

Prozedura horren arabera, “Zerbitzu Publiko Ordezkaritza Batzordea” (ZPOB) deitu batzordeak esku hartuko du. Batzorde hori 2014ko apirilaren 7ko deliberamenduaren arabera osatu da; alde batetik lehiaketan parte har dezaketen hautagaien zerrenda egiten du, eta bestetik, hautagaiak egin proposamenei buruz bere iritzia ematen du.

L’Aiglon zinemaren erabiltzeko ordezkaritzak ezaugarriak eta betebeharrak bilduko ditu ordezkarientzat eta Herriko Etxearentzat. Hauek herriko kontseilari guziei eman hitzarmenean zehaztuak dira.

Herriko Kontseiluari galdegina zaio:

- L’Aiglon zinemaren zerbitzu publiko ordezkaritza lehia ezartzeko prozedura onartzea, 5 urteko hitzarmen baten bidez, eta 2018ko urtarrilaren 1etik goiti hasiko da,
- ordezkariek bete beharko dituen zerbitzuen ezaugarri nagusiak zehazten dituen hitzarmena egiazkotzea.

- jaun auzapezari baimena ematea:
 - o ordezkaria hautatzeko egin beharreko urratsak betetzeko, bereziki deialdia, zerbitzu publiko ordezkaritza batzordeak eskaintzen biltzea eta aztertzea, bai eta ordezkariekin hautuaren prestatzea, ondotik Herriko Etxeari aurkeztuko dena,
 - o erabaki horren plantan ezartzeko baliatuko den dokumentu horren izenpetzeko.

Jaun auzapezak zehaztu du dispositiboaren berritzea baizik ez dela, eta Zerbitzu Publiko Ordezkaritzaren prozedura abiatzea.

Bacardatz jaunak galdegin du zergatik Herriko Etxeak ZPO bat egiten duen. Zergatik zinema ez dute herriko langileek kudeatzen ahal? Zer da ZPO horren interesa?

Lespade andereak erantzun dio Herriko Etxeak zinema jadanik kudeatu izan duela, baina biziki kario dela.

Jaun auzapezak baieztatu du zinema jadanik herriko langileek kudeatu izan dutela, baina ez zutela bereziki zinema gustuko, jarduera berezia baita. Zail gertatzen zen oporraldian edo eri ziren langileen ordezkatzea. Iduritzen zaio publikoaren errezibitzeak eta banatzaileekilako harremanak zaletasuna behar dutela, eta herriak xantza duela zaletasun hori duen Hazparneko norbait ukaitea, eta gainera biziki ongi egiten duela. Ez da zerbitzu publiko horren funtzionamendua gelditzeko arrazoirik, ongi iragaten baita, eta beharbada aldatuz gero, gibelera egingen delako.

Bardin jaunak erran du zinema-gela hori berritua izan dela, eta gela ederra dela orain. Beste maila batera iragan behar zen, eta profesional bat ukan.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

10 – Saneamendua: hitzarmena Hazparneko Herriko Etxearekin.

Devèze jaunak oroitarazi du hitzarmen horrentzat jadanik deliberamendu bat hartu zela, Urkoi auzoan den lurralde batentzat, Hazparneko mugan.

Hazparnek han araztegi ttipi bat badu. Nahi genuen Kanbo araztegi horri lotu hitzarmen baten bidez. Hitzarmena bi herrietako zerbitzuek landu zuten. Zehaztu du 2014ko irailaren 29ko lehen hitzarmeneko 3. artikuluan, kadastran diren lursailak idatziak zirela. Hazparneko Herriko Etxeak eraikitze baimenen zenbakiak edo hitzarmen hori izenpetu aitzin egin deklarazioak galdegin dizkigu. Horrek du bi dokumentuen izenpetzea luzatu. Kanboko Herriko Etxeak dispositiboaren kontra egin zuen doi bat, hitzarmenaren arabera Herriko Etxeak errezibitu behar zuen Saneamendu Kolektiboaren Gastuetan Parte hartzeak (SKGP) bi partaide zituelako xedetzat, eta garai horretan eraiki nahi zuten. Gune hori oraino garatzen ahal baitzen, Kanboko Herriko Etxeak kontsideratu du hoditerian ez baldin bazen aldaketarik egiten, hau da, orain arteko diametroak aski baldin baziren gunearen garatzeko, SKGP gure Herriko Etxeari beharko zela ordaindu eta Hazparnekoari.

Gaur egun, Euskal Elkargoak ditu saneamendu kolektibo eta indibidual guziak bilduko, eta 2019an, berdin 2018an, gero egin muntaduren SKGP ez da gehiago Hazparneko Herriko Etxera joanen, ez eta Kanbokora, baina Euskal Elkargora. Bilkura honetako eztabaida bakarra eraikitze-baimenetan edo aitzineko deklarazioetan zenbait oharren gehitzea izan zitekeen, gai horri buruzko dudak argitzeko Hazparneko Herriko Etxeari.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

11 – Arnagako faunaren aztertzea eta zaintzea: hitzarmena Saint Christophe lizeoarekin.

Pontacq andereak zehaztu du Arnaga eta Senpereko Saint Christophe lizeoaren arteko hitzarmena zela. Herriko kontseilari guziei eman hitzarmen-proiektuan idatzia den bezala, Saint Christophe lizeoak, Frantziako Estatuarekin duen elkartze-kontratuaren arabera, bere ikasleen lanbide-heziketa segurtatu behar du. Ingurumen naturalen, faunaren eta akuikulturaren kudeatze eta zaintzaren irakastea da lizeo horren berezitasuna. Ikasleek Lanbide Gaitasun Agiriarentzat, Lanbide baxoarentzat eta Goi-mailako Teknikari Brebetarentzat ematen dute izena. Praktiketako lanak eskolatik kanpo egin daitezke tutoretza bidez, eta beste erakunde batek bultzaturik. Ikasleek Arnagako lorategiaren kudeaketan parte hartuz geroz, egiazko baldintzetan ikasten dute lorategi baten kudeatzen eta hango basa-faunaren zaintzen. Parte hartze horiek kudeaketa erakusteko eta esperimintatzeko dira gehienik, bai eta formatzeko. Ez dira diru-operazioak, eta, beraz, ez dira neholaz ere ordainduko.

Goi-mailako Teknikari Brevetako talde batek hegaztiak eta batrazioak zerrendatuko ditu. Dokumentu bat ere idatziko dute. 2017ko urriaren bigarren igandean iraganen den Zientziaren Bestaren kariatara publikoa sentsibilizatuko dute.

Hitzarmen horretan zehazten da urte guzietz iturri-askaren garbitzera jinen direla ikasleak, hango animalien berreskuratzeko, eta Arnagako urmael guzietarik kentzeko obrarik egon behar balitz, eta ura berriz ezarri ondoan, animalien berriz ezartzeko.

Jaun auzapezak dio biziki hitzarmen ederra dela, eta faunaren zaintzeko ekimen ederra da, Jean Rostanden omenez.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

12 – Eskola-garraioa: hitzarmena Akitania Berriarekin.

Jaun auzapezak oroitarazi du orain arte Departamenduko kontseiluak zuela eskua eskola-garraioan. Herriko eskola-garraioa edo Departamenduak zuen egiten, edo honek herriei ordezkaritza osoa edo parte bat uzten zien. Orduan Departamendua 1. Mailako Aginpide Antolatzailea bilakatzen da eta Herria 2. Mailako Aginpide Antolatzailea. Hori egin da, Herria 2. Mailako Aginpide Antolatzailea zen Departamenduarekin egin hitzarmen baten bidez, eta bi aldiz luza zitekeen urte batendako, gutun bidez. Eta hitzarmen hori 2017ko uztailaren 2an bukatuko da. Beraz zerbait erabaki behar da.

Baina 2015eko agorrilaren 7ko NOTRe legeak eskumen-arauak aldatu ditu garraioarentzat. Ez du gehiago Departamenduak eskua, baina eskualdeak, ahalmen urriko hurren eskola-garraioarentzat salbu.

Horregatik Herriak kontratua egin behar du Akitania Berria eskualdearekin. Honek nahi izan du Departamendua eskumenaren sostengu gisa egon zedin. Eskualdeak eta Departamenduak herriari galdegin digute orain arteko sistemarekin segitu nahi ote genuen 2017ko uztailetik goiti. Herriak sistema hori luzatu nahi izan du, beraz, kontseilariei hitzarmen baten izenpetzea galdegin zaie Akitania Berriarekin eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin. Kanboko herria beraz, 2. Mailako Aginpide Antolatzaile geldituko da Akitania Berriaren eta Departamenduaren kontrolpean.

Jaun auzapezak oroitarazi du bi garraio mota badirela. Bat herriko zerbitzuek dute egiten herriko autobusarekin, eta bigarrena garraiolari pribatu batek du egiten, harekin hitzartu merkatu publiko baten arabera, hori lehian ezarri ondoan.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du hitzarmen hori lehen mailako ikasleentzat baizik ez zenetz.

Jaun auzapezak baietz erantzun dio.

Hiriart-Urruty andereak jakin nahi izan du familiek zerbait ordaintzen zutenetz.

Jaun auzapezak baieztatu dio azken bizpahiru urteetan Departamenduak deliberamendu baten bidez eskola-garraioa ordainaraztea erabaki zuela, baina iaz baizik ez dela ordainarazi. Alabaina, Departamenduak autobus anitz erreserbatu zituen ikasle guzietan autobusa ber mementoan hartzeko gisan, eta gehienak erdi hutsak ziren edo ez biziki beteak. Baina Departamendua ohartu da haur horietarik frankok eskola autobus agiria hartzen zutela uririk baitzen, baina ez zutela kasik sekula erabiltzen. Hori Departamenduaren arazoa da, eta jaun auzapezak ohartarazi du Akitania Berria eskualdeak ez duela printzipio hori kordokan jarri.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du azken urtean dela eskola-garraioa ordaindu behar.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua; Lespade andereak ez du bozkan parte hartu.

13 – Errobi kolegioaren inguruak eta Sorhainde plaza: diru-laguntza eskaera polizia-isunendako.

Jaun auzapezak oroitarazi du urte guzietan, polizia-isunen emaitza ez dela, herritarrek kontrakoa uste izanik ere, lurraldeko elkargoen sakelara joaten, baina Frantses Estatuaren sakelara. Estatuak lurraldeko elkargoei emaitzaren parte bat ematen die, bereziki bide-segurtasun neurrientzat. 10.000 biztanle baino guttiagoko herrientzat, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, errezibitu polizia-isunak aurkeztuak zitzaizkion proiektuen arabera banatzen ditu.

Horregatik, jaun auzapezak bi dossier aurkeztu nahi izan ditu Departamenduaren laguntzak ukaitera entseatzeko.

Lehen dosierra Errobi kolegioaren inguruei dagokio. Herriko Etxeak bide bat egin nahi luke oinezkoentzat bide-geltokiaren bi aldeetan haurren segurtasunaren hobetzeko goiz eta arratsetan. Bestalde, Herriko Etxeak Departamenduari galdegin dio haren alorraren parte baten uztea oinbidearen zabaltzeko gisan, hertsiegia baita ikasleen kopuruari begira, bereziki goizetan. Obra horiek 83.730 € estimatuak dira (zerga gabe).

Bigarren dosierra Sorhainde plazari dagokio. Departamenduaren linearen erabilpenarentzat gai gogorrez egin da eraikuntza, bereziki ahalmen urriko pertsonen arauen arabera oinbidea ukaiteko gisan, autobusean errazki sar daitezten. Obra horiek 113.599,89 € estimatuak dira.

Beraz, bi obra horiek orotara 197.329,89 estimatuak dira (zerga gabe).

Jaun auzapezak proposatu du obra horiek gogoan hartzea, eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari diru-laguntza baten galdatzea, polizia-isunen banaketaren kariatara.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

14 – Herriko lursailaren alokatzea.

Etchelecu jaunak oroitarazi du urte hastapenean Herriko Kontseiluak herriko lursail batzuez deliberatu zuela, denen alokatze-epea bururatzen baitzen eta denak berritu baitziren jadanik hor ziren etxetiarrekin. Lursail bat ez zen berriz alokatu etxetiarrak ez baitzuen Herriko Etxearekin zuen kontratua luzatu nahi: Hegala lekuko 2 hektareako 145. B zatia zen, Dominique Bonçoni alokatua.

Herriko Etxeak kontsulta bat abiatu du lursailetik hurbil diren zazpi laborariri zuzendua. Hautagai bakar bat da interesatua, David Chaldu jauna hain zuzen, 2017ko maiatzaren 23ko gutun baten bidez jakinarazi duen bezala.

Beraz, Herriko Kontseiluari proposatu da laborari horrekin kontratu baten izenpetzea, Baserri Kodearen eta baserri-aloikatzen arabera. Duen azalerarengatik, lursail hori etxalde-aloikatze estatutupeko da.

- Prefetaren erabakiaren arabera, Biarnoko eta Euskal Herriko 4. gunean sailkatua da. Lursailaren maila lurren ustiatzeko kalitatearen eta ahalen arabera finkatua da,
- Baserrialdeko eta Itsas Arrantzaren Kodeko L 411-11. artikulua arabera, eta 2016ko uztailaren 13ko ministroaren erabakiaren arabera 2016. urtearentzat etxetiarren indize nazionala 109,59koa zela finkatu da,
- etxetiarrak ordaindu beharreko zenbatekoa gutienezko eta gehienezko prezio baten arabera finkatua da urtero prefetura erabaki baten arabera,
- alokairua urte guziez berrikusiko da, alokairuen indize nazionalaren bariazioaren arabera, Baserrialdeko eta Itsas Arrantzaren Kodeko 411-9-9. artikulua arabera,
- lursaila bederatzi urterendako alokatzen da, 2017ko uztailaren 1az geroztik,

Herriko Kontseiluari galdegina zaio:

- etxetiar-alokeurari buruz bere iritzia ematea, bederatzi urte iraunen du eta David Chalduri zaio alokatuko 2017ko uztailaren 1etik goiti,
- jaun auzapezari baimena ematea David Chaldurekin alokatze-kontratua izenpetzeko. 4. mailakoa da, eta urteko alokairua gutienez 43,79 €/ha izanen da eta gehienez 98,23 € 2ha 24a 32ca-rentzat (alihak eta bazkaleku-bideak).

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

15 – Ortziraleko merkatua: araudiaren eta tarifen kanbiatea.

Jougleux andereak erran du araudia eta tarifak doi-doia aldatuko zirela. Oroitarazi du ortziraleko merkatua etxaldeko ekoizpenen saltzeko dela, baina iaiztik goiti, ekainaren 1etik urri erditsura arte lekuko eskulangintzari ere irekia da. Ofizialeak merkatura erregularri etorrarazteko, Merkatu Batzordeak pentsatu du, beste ekoizpenentzat bezala, prezio erakargarri bat proposatzea, hots, lau hilabete eta erdiko abonamendu bat. Horretarako, araudiaren 3. artikulua aldatu behar liteke, eta “urteko abonamendua proposatzen da” erranaldia kendu, erranaldi horretaz ordezkatzeko: “urteko abonamendua proposatzen da janari ekoizleei eta abonamendu berezia eskulan-saltzaileei”.

Tarifaren aldaketari dagokionaz, etxaldeko ekoizpenen merkatuentzat hori proposatzen da: “% 20ko beherapena egiten da urteko abonamendua hartzen duten janari-saltzaileei”, eta “% 10eko beherapena egiten da ekainetik urri erditsura arteko abonamendua hartzen duten ofizialei”.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

16 - Diru-laguntzak elkarteei.

Jaun auzapezak erran du bi diru-laguntza osagarri badirela Herriko Etxeko hastapeneko aurrekontuarentzat bozkatu zenari begira.

Lehen elkartearentzat, Herriko Etxeak ez du diru-laguntza eskaerarik errezibitu, baina iduriz postaz igorria izan da. Integrazio Batzordea elkartea da hori. Jaun auzapezak proposatu du 505 €-ko diru-laguntza ematea, 2016an bezala. Elkarteak 600 € galdegin zuen, baina beste elkarteentzat bezala, 2016an eskuratu diru-laguntza bera ukanen dute.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

Dosierra igorri ez duen bigarren elkartea Kanboko igeriketa kluba da. Alabaina, zailtasunak ukan ditu lehendakari eta bulego baten izendatzeko. Jaun auzapezak proposatu du 2016ko diru-laguntza bera ematea, hots, 620 €.

Hiriart-Urruty andereak argitasunak galdegin ditu klub horren funtzionamenduari buruz.

Irastorza jaunak erantzun dio klubeko haurrek 35 €-ko urte-saria ordaintzen dutela, eta Euskal Elkargoak prezio hori atxiki duela. Igeriketa 13:30etik 14:30era iragaten da eta karta pagatuz geroz igerilekuan egon daitezke arratsaldean.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du zer lotura baden igeriketa-klubaren eta igerizainen artean.

Irastorza jaunak erantzun dio igerizainak Errobi Lurralde Eremuak zituela igeriketa-klubaren zerbitzuko ezartzen. Alabaina, igeriketan entrenamenduak ukaiteko, entrenatzaile diplomadunak behar dira, eta Kanbon igerizainak libro ziren. Kanboko igeriketa-kluba da gazteentzat jarduerak proposatzen dituen elkarte bakarra, aisialdi-zentroaz gain, baina ez doaz denak hara. Horregatik indar bat egin da, gazteek uda guzian zehar jarduera bat ukan dezaten.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du igerizainak urrik ezartzen ote direnez klubaren esku.

Irastorza jaunak baieztatu du igeriketa-klubak ez dituela igerizainak ordaintzen. Igeriketa-klubean iragaten duten denbora haien lan-denboraren parte da.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du orain Kanboko eskolako haurrek eta Errobiko haur guziek igerilekua ordaintzen dutela.

Irastorza jaunak erantzun dio hori Errobi Herri Elkargoaren bilkura batean erabaki zela, eta Hiriart-Urruty anderea bilkura horretan zela. Erran du ez zuela uste normala zenik 0 eta 6 urte arteko haurrek igerilekua ordain zezaten, ordu arte ez baitzen hala, baina nehork ez zuen deus erran. Herri Elkargoak Uztaritzeko igerilekuaren tarifak aplikatu ditu, eta denak tarifa horiekin ados ziren.

Hiriart-Urruty andereak hori baieztatu du, baina oroitzen da bilkura horretan baina-tokien alokatzea deliberatu zela, Uztaritzeko prezio ber-berak aplikatzeko gisan. Baina aurrean ere, bi igerizainek abantailazko prezioa gostako dute: 900 € bakoitzak sasoi guziko (iaz 700 €).

Haurrentzat Uztaritzeko igerilekuaren tarifa ber-berak aplikatzea bozkatu zen, baina baina-tokien alokatzeko ere, baina Kanboko herriak ez du neurri hori aplikatu.

Irastorza jaunak erantzun dio Errobi Lurralde Eremuak duela erabaki hori hartu.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du hori erantzutea aise zela eta galdegin du nor ziren bilkura horretan ziren Kanboko ordezkariak.

Irastorza jaunak berriz erantzun bera eman dio.

Jaun auzapezak gehitu du errealitatea zela. Herriko Etxea ez da gehiago eskudun eta Hiriart-Urruty andereari iradoki dio haren galdea Errobi Lurralde Eremuko lehendakariari pausatzea, hots, Paul Baudry jaunari. Bestalde, esperantza du Errobi Lurralde Eremuaren bilkura bat eginen dela, Errobi Herri Elkargoko lehengo kide guziak Errobi Lurralde Eremuaren Aholku Batzordearen parte baitira.

Lespade andereak hitza hartu du eta baieztatu arazo franko badela publikoaren sartzeeekin, Kanboko herria eskudun zelarik baino aise arazo gehiago. Alabaina, 0 eta 6 urte arteko haurrentzat urriarik zen. Orain denek pagatzen dute, hilabete bateko niniek ere. Jendeak Herriko Etxera joaten dira pleinitzera, baina honek ezin du deus egin, Errobi Lurralde Eremura joan behar da pleinitzera. Lespade andereak Errobi Lurralde Eremuan argibideak galdegin ditu, eta Irastorza andereak erran bezala, erantzun diote Uztaritzeko igerilekuaren tarifak aplikatu direla. Uztaritze oldartu da eta erran haien igerilekuan 3 urte arteko haurrentzat urriarik zela, baina ez zen egia.

Beste arazo bat ere bada. Orain arte, 10 sartzeko abonamendua hartzen zuten jendeek ondoko urtean erabil zezaketen sekula ez baldin bazuten bukatua. Aurten Euskal Hirigune Elkargoak du horren eskumena eta 10 sartzeko txartel horiek ez dira gehiago bali, eta Euskal Hirigune Elkargoak ez ditu gehiago onartzen. Txartel horiek dituzten pertsonen proposatzen die dirua itzultzea. Hori Kanboko Herriko Etxean egin daiteke.

Lespade anderearen iduriko jendeei erran behar zaie arazoa Euskal Hirigune Elkargotik datorrela eta ez Kanboko Herriko Etxetik. Erran behar zaie ez duela balio Herriko Etxeko idazkariak gaizki erabiltzea, igerilekua ireki denez geroztik ortzegun eta astelehen guzietz jendea heldu baitzaie prezio horiez pleinitzera.

Eskolen prezioei dagokionez, Kanboko eskolentzat 1,50 € gehiago gosta du eta beste eskolentzat + 0,10 €. Kanboko eskolek galdegin dute Herriko Etxeak gainkostu hori bere gain hartzea.

Lespade andereak proposatu du jendeak lasaitzea eta erratea 2016ko txartelak atxikitzea noizbait eskumena Herriko Etxeak berreskuratzen baldin balu, berriz erabiltzeko gisan. Igerilekuaren sarteentzat arazo bat bada, gerla da.

Beyrie andereak erran du luhusoar batek erran diola Luhusoko eskolentzat Luhusoko Herriko Etxeak zuela bere gain hartzen saioaren kostua, eta ez burasoek, hots, 1,50 € haur bakoitz.

Lespade andereak erran dio Kanbon Luhuson baino haur gehiago badela.

Beyrie andereak erantzun dio nahikari kontua dela.

Irastorza jaunak gehitu du Luhusoko Herriko Etxeak ez duela igerilekurik eta, beraz, ez duela Kanboko Herriko Etxeak dituen mantenu-kostuak.

Hiriart-Urruty andereak erran du Herriko Etxeak ez baitu gehiago mantenu hori bere gain, sarteak bere gain har ditzakeela.

Jaun auzapezak erran du hori erratea oker zela. Alabaina, Herriko Etxeak ez du gehiago mantenu-kostua bere gain, baina Kargu Eskualdatuen Lekuko Ikerketa Batzordeak igerilekuaren

mantenu kostua estimatu du, eta kargu hori Herriko Etxeari zor dionari atxikitzen du ordain-hornidurentzat. Igerilekuaren entretenitzea Euskal Hirigune Elkargoak eman ordainsarrietan atxikia da. Beraz, operazio neutroa da, eta Herriko Etxeak ez du irabazirik ukanen.

Jaun auzapezak pentsatzen du, alde batetik, Errobi Lurralde Eremuaren esku utzi beharko dela Euskal Hirigune Elkargoaren sortzearen kariatara, eta bestalde, eskumen horren bilakaera hurbiletik jarraiki beharko dela. Oroitarazten du hautuzkoa dela. Euskal Elkargoak bi urte ditu bere iritzia agertzeko, hala nola, errateko igerilekua Euskal Elkargoaren gain egoten denetz ala Herriko Etxearen gain, eta kontu horri erne egon beharko dela. Alabaina, zailago gertatzen da lekuko zerbitzu publiko bat Baionatik kudeatzea ezen ez eta Kanbotik, edota, adibide honetan bezala, Itsasutik Kanbotik baino.

Hiriart-Urruty andereak erran du damugarri dela erabakia Errobi Lurralde Eremuan hartu izana, bereziki baina-tokien alokatzeari buruz, horren bidez gutiestekoa ez den diru-kopurua sartuko baitzen, eta Kanboko Herriko Etxeak ez du hori aplikatu, zalu joateko estakuruan.

Jaun auzapeza dena entzuteko prest da, baina berriz ere erran du Kanboko Herriko Kontseiluari ari dela, eta ez honek duela kontu horretan eskumenik. Zehaztu du Kanboko Herriko Etxeak ez duela gehiago igerilekuaren kudeatzeko eskumena, eta berriz ere galdegin dio eskudunari mintzatzea, hots, Errobi Lurralde Eremuari, edo Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakari den Jean-René Etchegarayri idaztea.

Erabaki oro, alde edo kontra agertze oro, legez kanpokoa da, igerilekua ez delako Herriko Etxearen afera.

Jaun auzapeza dolu da berriz errepikatu behar ukaitea, baina Hiriart-Urruty andereari aholkatzen dio Errobi Lurralde Eremuaren Aholku Batzordeari bilkura galdegitea. Denek badakite, bai eta publikoak ere naski, ontsalaz Errobi Herri Elkargoko Kontseiluko kide guziak Errobi Lurralde Eremuaren Aholku Batzordearen kide gelditzen direla.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du nork zuen bilkura hori erabakitzen.

Jaun auzapezak erantzun dio nahi izanez geroz, Errobi Lurralde Eremuko arduraduna den Paul Baudry jaunari idazten ahal diola Aholku Batzordearen bilkura galdatzeko.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du Errobi Lurralde Eremuko hamaika auzapezak bildu direla.

Jaun auzapezak erantzun dio Euskal Elkargoaren ordezkariaren arau franko finkatzeko bildu direla. Ez dira bildu gaiak zehazki aztertzeke, baina haatik Aholku Batzorde hori bildu behar da eta Hiriart-Urruty anderea galdea egitera sustatzen du.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

17 – AGAZen prezioak

Saint Jean jaunak oroitarazi du aisialdi zentroak 9/10 urteko haurrentzat eta 11/14 urteko nerabeentzat gaualdiak antolatzen dituztela arratseko 19:00etatik biharamun goizeko 09:00ak arte, bi animatzailearen, zuzendariaren eta haren laguntzailearen zaintzapean. Gazteek haien lagunekin abentura bat bizitzea da xedea, etxetik kanpo.

Aurten, 2017ko uztailearen 17an antolatuko da gaualdi bat: euskal gaualdia izanen da, Kanbon, dantzaren, pilotaren eta herri-kirolen inguruan. 8 € gostako du gaualdiak haur bakoitz: 5 € sartzearentzat (talo bat eta edari bat barne), 1 € desertarentzat eta biharamun goizeko askariarentzat, eta 2 € funtzionamendu-gastuentzat.

Jaun auzapezak ekimen ederra dela pentsatzen du.

Saint Jean jaunak gehitu du aspalditik egiten den ekimena dela. AGAZarenak diren oihaltxolak haurren esku ezarriak dira Kanboko eskolan. Gutenez zazpi haurreko talde bat behar da Gazteriaren eta Kirolen baimena ukaiteko gisan.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

18 – Langileak.

a) Lan Ibilbide, Lanbide eta Lansarien (LILL) erreformaren kariatara mailen sortzea.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak jakinarazi du mailak sortuko zirela LILL deitzen den erreformaren kariatara, hala nola hitzarmen protokolo baten kariatara LILLaren berritzeko asmoz. 2016az geroztik aldaketa franko gauzatu dira, eta 2020 arte iraunen dute, erreforma horrek bost urte iraunen baitu. Aldaketak hiru puntu horiei buruz dira:

- Indize-taulen emendatzea etapaka,
- Ordainketa araubidearen beherapen baten plantan ezartzea indize-lansarien alde,
- Maila igateen iraupenaren aldaketa eta enpleguen oinarriaren berregituratzea.

Erreforma horri dagokion maila aldaketari lotu zahartasun berriaren kontuan hartzeko gisan, lanpostu horiek sortu behar dira: oraingo postuak kenduko dira eta langile kopuruen taula eguneratuko da ondoko hastapeneko aurrekontuaren kariatara.

2017ko uztailearen 1ean:

- 1. mailako bi administrazio-laguntzaile nagusi lanpostu iraunkor denbora osoz,
- 1. mailako bost teknika-laguntzaile nagusi lanpostu iraunkor denbora osoz,
- 2. mailako teknika-laguntzaile nagusi lanpostu iraunkor bat denbora ez osoz (20/35),

2017ko irailaren 1etik goiti: teknikari-arduradun nagusi lanpostu iraunkor bat denbora osoz.

2017ko abenduaren 1etik goiti: 2. mailako administrazio-laguntzaile nagusi lanpostu iraunkor bat denbora ez osoz.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

b) Arnagako txarteldegiaentzat lanpostu baten sortzea.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak zehaztu du Arnagako txarteldegia dela. Herriko Kontseiluari proposatua zaio teknika-laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzea denboraz ez osoz (30/35). Lanpostu horrek bi parte ditu, hots, mantentze-langile Herriko Etxean (10/35), eta Arnagako txarteldegiko langile (20/35), 2017ko uztailaren 1etik landa.

Arnagako txarteldegia arduraren ardura zuen langilea joan baita, postu hori sortzen da, eta proposatua da beste postu baten sortzea txarteldegia eta Herriko Etxearen mantentzea batzen dituen, hartu langileak orain arte Herriko Etxearen mantentzean ere lan egiten baitu. Bi lanpostuak bilduak dira 30/35 oreneko lan-denbora osatzeko.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegin du.

Aho batez onartua.

20 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Lurralde Elkargoen Kode Nagusiaren L.2122-22 eta L.2122-23. artikuluen arabera, eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko Kontseiluaren erabakiaren arabera, horra jaun auzapezaren erabakiak hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko 2017ko martxoaren 11tik 2017ko ekainaren 2ra:

- Kontzesioen erostea 15 urterentzat: 0
- Kontzesioen erostea 30 urterentzat: 2
- Kontzesioen erostea 15 urterentzat haurren lorategian: 1
- Kontzesioen erostea 30 urterentzat haurren lorategian: 0
- Kontzesioen erostea 30 urterentzat (+ hilobiak): 1
- Kontzesioen erostea 30 urterentzat (+ kolunbarioak): 0
- Kontzesioen berritzea 15 urterentzat: 1
- Kontzesioen berritzea 30 urterentzat: 0
- Kontzesioen berritzea 30 urterentzat (hilobiak): 0
- Urririk diren lursailen berriz hartzea: 0

21 – Gainerako gaiak.

- Jaun auzapezak jakinarazi du Herriko Etxeari galdegina izan zitzaiola kontseilariak jakinaraztea Etxarriko Elgart jauregiaren salmentaren kontra petizio bat bazela. Nahi duen kontseilariak petizioa ukan dezake. Jaun auzapezak azken Herri Urrats bestaren kariatara izenpetu ahal izan zuen. Kontseilari batzuek izenpetu nahi balute, zerbitzuen zuzendari nagusiarengana jo bezate.
- Jaun auzapezak jakinarazi du Herriko Kontseilua bilduko dela prefetak galdeginik eta ez auzapezak berak galdeginik. Alabaina, 2017ko irailaren 24an iraganen diren senatu-hauteskundearen kariatara, jaun prefetak erabaki du herriko kontseilari guztiak nahi ala ez bilkura batera deituak izan direla 2017ko ekainaren 30ean. Beraz prefetak deitu bilkura da, eta ez auzapezak. Eta ez ditu Lurralde Elkargoen Kode Nagusiak finkatu epeak errespetatu. Beraz, prefetak hala erabakirik, 2017ko ekainaren 30ean, ostiralarekin, 18:00etan, Herriko Kontseilua bilduko da.
- Hiriart-Urruty andereak erran du joan den larunbatean Euskal Hirigune Elkargoaren Kontseilua iragan zela, eta orduan beren burua batzordeetan aurkezten zuten pertsonak hautatuak zirela. Zehaztu du edozein herriko kontseilari bere burua aurkezten ahal zuela

gaikako batzordeetan lanean aritzeko. Haren oposizio-taldeak ustekabeen ukan du horren berri, eta Nathaliek eta berak beren burua aurkeztu dute batzorde bat baino gehiagotan. Errobi Lurralde Eremuak aurkeztu zituen, hura Mugikortasun Batzordean eta Nathalie Ingurumen Batzordean. Jakin nahi luke zer erabaki den.

Jaun auzapezak erantzun dio uste zuela batzorde bat baino gehiagotan aurkeztu zutela beren burua. Errobi Lurralde Eremuak arbitramendu bat egin du eta bakoitza batzorde batean da. Gainera bere baimena emana zuen horretarako, baina batzorde batzuetan hautagai gehiegi bazen, eta beste batzuetan, berean bezala, ez zen bihirik. Euskal Elkargoarekin arbitramendua egin behar izan da, honek ez baitzuen nahi batzorde batzuk gehiegizkoak izan zitezten. Jaun auzapeza segur da bai bat bai bestea batzordeetan direla.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du bere burua hiru batzordetan aurkeztu zuela, gutienez batean hartua izateko.

Bardin jaunak erantzun dio bere burua aurkeztu zuela Hirigintza Batzordean eta ez dela hautatua izan.

Hiriart-Urruty andereak ez daki hautuak nola eginak izan diren. Iduritzen zaio Etchegaray jaunak nahi zuela oposizioko jendeak ere izatea, Euskal Elkargoan ez baita, ondikoz, oposizio anitz, eta gizon-emazte parekotasuna nahi zuen.

Devèze jaunak baieztatu dio biak batzorde batzuetan direla. Nathalie 3. batzordeko ordezkoko da, trantsizio ekologikoan...

Hiriart-Urruty andereak moztu du errateko hark duen taula ez dela taula ona.

Devèze jaunak gehitu du Hiriart-Urruty andereak erranaren ildotik, batzorde bat baino gehiagotan aurkezteari buruz, hark ere bere burua Zerga-Finantza Batzordean aurkeztu zuela eta Lurralde Eremutik arbitramendu bat errezipitu duela, Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakariak galdeginik. Jende franko bazen batzordeetan, eta batzorde bakarra hautatu behar zen. Horri esker arazorik ez zela erantzun du. Lan egiteko jende anitz baldin bada, bi batzordeak uzten ditu eta lekua uzten du. Lehendakariordeak Ur Batzordera joan nahi zuenetz galdegin dio eta parte hartze horretara mugatua izan da.

Hiriart-Urruty andereak galdegin dio Herriko Kontseiluko beste hautetsi batzuk ba ote dirennez gaikako batzordeetan.

Jaun auzapezak erantzun dio bera Hondarkin Batzordean dela eta Irastorza jauna Turismo Batzordean.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du larunbateko Elkargoko Kontseiluan batzordeak lanean hasteko data bat hautatu ote zenetz.

Jaun auzapezak ezetz erantzun dio.

- Aïçaguerre andereak jakinarazi du 3.eko ikasleek kolegioetako brebeta pasako dutela ondoko astean, bereziki Xalbador kolegioko ikasleek. Aurten berriz ere arazo berri bat bada: kolegioen erreformarekin hiru gaiak ukanen dituzte (historia-geografia, matematikak, frantsesa), eta gainera zientziak. Zorigaitzez, ikasleek ez dituzte zientziak euskaraz aurkezten ahalko. Elkarretaratze bat antolatua da ekainaren 29an 13:30etik goiti Errobi kolegioaren aitzinean eta ongi liteke sentsibilizatuak diren hautetsiek parte har dezaten. Ikasle gehienek, eta naski ikasle guzietan, brebeta euskaraz aurkeztea deliberatu dute. Badakite 0 ukanen dutela. Nota ez da kanporatzailea, baina anitzek Bikain aipamena ukan lezakete eta ez dute ukanen. Hautetsi guzian ongi etorriak izanen dira elkarretaratze horretara. Hemendik hara errektoretzak erabakitzen baldin balu azkenean azterketak euskaraz pasatzen ahalko dituztela, Aïçaguerre andereak mezu elektroniko bat igorriko du horren jakinarazteko.

Jaun auzapezak erran den guziarekin bat egiten du. Ez zaio biziki zentzuzkoa, eta ikuspuntu horrekin arrunt ados da. Nahi luke zenbait hautetsi elkarretaratzera joan ditezten.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluaren bilkura 21:00etan bururatutzat eman du.